



PRODUKTUAREN DESKRIBAPENA

Gu Maider Ongay, Jaione Soto, Naroa Majada eta June Guerrero gara; eta Emmejjota izeneko enpresa sortu dugu. Garatu dugun produktua ECOFROLADA da, eta honen ideia plastikoaren erabilerak sortzen duen kutsadura murrizteko sortu zen.

Mota ezberdinetako ECOFROLADA entsaladak diseinatu ditugu; Orereta, Oiartzun eta Donosti deitutakoak. Orain bakoitzaren osagaiak aipatuko ditugu.

Hiru entsalada motek letxuga dute osagai nagusi gisa, eta guztiek ongailu moduan olioia, ospina eta gazta ekarriko dute beirazko botetxoetan. Gainera, banbuzko sardexka bat izango dute jan ahal izateko, gure produktuei erosotasuna ematearren.

Lehenik, "Orereta" entsalada dugu. Honen osagaiak hirugiharra, gazta eta tipula kurruskaria dira.

Bigarrenik, "Oiartzun" entsalada dago. Entsalada honek tomate cherryak, olibak, gazta eta hegaluzea ditu.

Azkenik, "Donosti" entsalada daukagu. Honek tipula, olibak, tomate cherryak, eta azenarioa du.

Momentuz bakarrik hiru mota egitea erabaki dugu, baina gure enpresa etorkizunean ongi arituko balitz, mota gehiago egitea pentsatuta daukagu.